

Galdera

7 eta 12 kongruenteak dira modulo 5, ondo esanda dago?

Erantzuna

Honela irakurri behar da $7 \equiv 12 \pmod{5}$

7 kongruente 12, 5 moduluz

Eta azalpena, hauxe:

7 eta 12 zenbakiak kongruenteak dira 5 zenbakiarekiko

1/ Honela dio Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoak:

<https://zthiztegia.elhuyar.eus/terminoa/eu/kongruente>

2. Mat.

Zenbakiez mintzatuz, modulu izeneko zenbaki batekiko, delako zenbakiaz zatituta hondar bera ematen dutenak. Adibidez, 63 eta 83 zenbakiak kongruenteak dira 10 zenbakiarekiko, biek hondar bera (3) uzten baitute 10 zenbakiaz zatituz gero (beraz, [63 – 83] kendura hamarren multiploa da). Honela adierazten da: $63 \equiv 83 \pmod{10}$, eta honela irakurtzen da: 63 kongruente 83, 10 moduluz.

- en [congruent](#)
- es [congruente](#)
- fr [congruent](#)

Beraz, orokorkiago, $A \equiv B \pmod{C}$ honela irakurriko da: **A kongruente B, C moduluz**

Hau da, A eta B zenbakiak kongruenteak dira C zenbakiarekiko, biek hondar bera uzten dutelako C zenbakiaz zatituz gero; esan nahi baita, 7 eta 12 zenbakiak kongruenteak dira 5 zenbakiarekiko, biek hondar bera (2) uzten baitute 5 zenbakiaz zatituz gero.

2/ Gaztelaniaz:

$$A \equiv B \pmod{C}$$

Esto dice que

A es **congruente** con B módulo C

3/ Ikus:

[Matematikako Oinarritzko Lexikoa](#)

[Ikur eta zeinu bidezko adierazpen matematiko-fisikoen irakurbidea](#)